

NERBIOI-IBAIZABAL ESKUALDEAN NATURAN OINARRITUTAKO KONPONBIDEE ERABILERAREN SUSTAPENA ETA AUKERA-IDENTIFIKAZIOA

Posted on 10/02/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Hirigintza jasangarria eta eko-hiria](#), [Naturan oinarritutako konponbideak](#), [Nerbioi-Ibaizabal](#)

[Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitateak](#) NAIDERen laguntza teknikoa du bailarako udalerrietan Naturan Oinarritutako Konponbideen (NBS, ingelesez siglez) erabilera sustatzeko.

Helburu horrekin, udalerriek gaur egun naturan oinarritutako zein egokitzapen-neurri dituzten identifikatu eta mapeatuko da. Hortik haratago, eskualdean NBSak hedatzeko zer aukera dauden aztertuko da: zeintzuk aldatu edo indartu behar dituzten, zein eremu berri erabili daitezkeen, eta, azken batean, birnaturalizazioaren ikuspegitik egokitzapen globalerako zer potentzial dagoen.

Horrela, erabakiak hartzeko ezagutza-elementuak eta tresnak jasoko dituzte eskualde eta udalerrietako erantzuleek, NBS bidez ahalik eta egokitzapen-ahalmen handiena aprobetxa dezaten. Proiektua bai eskualde mailan, bai udalerri mailan burutuko da, Bizkaiko Nerbioi-Ibaizabal bailarako bederatzi udalerrietarako: Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Etxebarri, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo eta Zeberio.

